

## BJLO ERREFORMATZEKO EGITASMOA

---

### *LABen hainbat gogoeta eta posizioa*

Madrildik datorkigun eraso bati aurre egin behar diogu berriro ere. Kontua da dugun transferentzia zeharo ez nahikoa dela, Madrilen ez baita ezer negoziatzen, bai ordea, ugari inposatzen. Era berean, sindikatu deitzaileen partetik ere heltzen zaigu inposizioa: CCOO, UGT, CSIF eta STAJ erakundeek mobilizazioetara eta greba egun batera deitu dute, aintzat hartu gabe gainerako sindikatuak (besteak beste, Intersindical Canaria, CUT, CIGA, ELA, LAB, Intersindical Valenciana...). Baina deialdia egin eta gero nahi dute besteok babestu ditzagula ekintza batzuk, beraiek antolatzerakoan baztertu bagaituzte ere. Ez dute inolako errespeturik erakusten eta gobernuak ere ez: bilera bat egin zuen sindikatu deitzaileekin, beste guztiak aintzat hartu gabe. Zer adostu edo negoziatu ote dute bilera horretan? Inork ez daki. Horixe da gainerako sindikatuen kexa. Horrexetarako balio du Madrileko mahaira joateak.

Bada, Estatuko Parlamentuak zein erakunde deitzaileek jarrera berbera dute: inposizioa. Hala eta guztiz ere, langile guztien hobe beharrez, **ezin gara geratu mobilizazioetan parte hartu gabe. Hortaz, Euskal Herrian antolatuko diren mobilizazioetan parte hartuko du LABek.**

Gure lan-baldintzen aurkako eraso honekin hauexek ezartzera doaz:

- **erabateko mugikortasuna**, baja bakar bat ere ez dute nahi ordezkatu, horretarako beste zerbitzuetako langileak baliatzeko asmoa dute;
- **gero eta bitarteko langile gutxiago kontratzearen** ondorioz titularrek lan zama handiagoa izango dute eta **herritarrei emandako zerbitzua kaskartuko da**;
- errefortzuzko kontratuak **ez dituzte 6 hilabetetik aurrera luzatuko**;
- **Instantzia Auzitegiak** ezartzeko bidea jartzen dute;
- **Lanbide-karrerarako aukera deusezten dute**;
- ez dute BJLO egokitu, **beraz gaixotasun aldietako deskontuak egiten jarraituko dute.**

Eta hori guztia zeren truke?

LABen betiko aldarrikapenetako bat **TRANSFERENTZIA OSOA** da. Gure lan-baldintzetan eragina duen erabaki orotan esku hartzeko eskubidea aldeztan dugu: **BERTON LAN EGIN, BERTON ERABAKI!** Gauzak horrela, beste behin ere interpelatzen ditugu Nafarroako eta EAeko gobernuak **gutxieneko borondate politikoa erakuts dezaten beraiek hartutako erabakiak burutze aldera –transferentzia osoa exijitzea ez da nahikoa, betearazi behar baita-**; eta, bide batez, hirugarren klaseko langiletzat ez gaitzaten har.

Lehenago esandako guztia dela eta, gure lan-eskubideen defentsan Euskal Herrian deituko dituzten mobilizazio guztiak babestuko ditu LABek.

2018-11-06

**LAN-BALDINTZAK INPOSATZEARI EZ!  
TRANSFERENTZIA OSOARI BAI!  
BENETAKO PAREKIDETASUNA ORAINTXE!**

---